

EUSKARA BATUA
IRUÑEKO
PROPOSAMENA
AZENTUARI BURUZ

IRUÑEA 1987
LINGUISTIKA SAILA

Gaur amaitu dugu Iruñeko **LARRAONA** egoitzan, bi egunetan barrena Euskal Azentuari buruz, eta UEUko ekintzen artean, antolatu den Biltzarra.

Erdal fonologiaren interferentzia hazkorraren kontra geure azentukera bereziari eutsi ahal izateko, guztiz beharrezkotzat jotzen dugu Euskaltzaindiak ahozko eredu bat kaleratzea; eta, honen barruan, bereziki, azentu eredu zehatz bat proposatzea.

Arazo korapilotsua, jakina denez; ez askoz ere zailagoa, halere, Euskara Batuaren prestakuntzan topatu ditugun gainerakoak baino.

Helburua ez da argitzapen prozesu baten ondorio gisa baizik lortuko. Prozesu hori, ordea, ahalik eta azkarrenik abiatu eta bideratu behar da; Euskaltzaindiak berak Azkoitian eta Durangon eraturako topaketetan garbiki agertu zenez.

I - OINARRIZKO PUNTU BATZU

Egun hauetan burututako bileretan entzun ditugun argudioak eta eztabaidak kontutan hartuz, oinarrizko puntu batzutan bederen adostasuna badagoela iruditzen zaigu:

I.1.- Euskal azentu mota desberdinek, batetik, eta gure inguruko bi erdal azentu nagusiek, bestetik, batera fonetika hutsaren alorrean, azentu-unitatearen definizioan eta silaba azkarraren posizioaren aldetik, funtsezko desberdintasunak erakusten dituzte:

I.1.1.- Fonetikoki, askoz ere leunago eta berdina da euskal azentukera, ondoko erdarena baino.

I.1.2.- Euskal klitikoek zerrenda, eta ondoko bi erdaren zerrenda, desberdinak dira; eta, hortaz, euskal azentu-unitatea eta ondoko bi erdarenak, desberdinak dira.

I.1.3.- Azentu unitateko silaba azkarraren posizioa, era berean, ez da ondoko bi erdaretan bezala definitzen.

II - HAUTABIDE BATEN BILA

II.1.- Mitxelenaren sailkapena (1972) oinarritzat harturik, eta arrazoin linguistiko eta soziolinguistikoengatik batera, **hizkera neutro edo ofizialaren eredu gisa**, "*type I*" (I eredu) deritzona **hobestea** proposatzen dugu. Berariaz hautatzen dugu "hobetsi" hitz hori; sailkapenean azaltzen diren **euskal** azentu-mota guztiak hartzen baitira jatortzat, bat ere gaitzetsi gabe.

Berriro ere, katea suprasegmentalaren alor honetan ere, **erdal** interferentziak baztertu nahi dira.

II.2.- "*I eredu*" horrek (gutxi gora behera, eta gutxienez, bizkaierak, gipuzkerak, eta Mendebaldeko nafarrerak osatzen duten horrek) bere barruan ñabardurak, are desberdintasunak ere, erakusten dituzenez gero, multzoa osatzen duten euskalkion **elkar-muinera** jo behar da, bigarren mailako diferentzia xumeak alboan utziz. Horretarako ikerlanak eta datu-bilketak ugaldtu eta bultzatu behar dira, eta ondoriozko xehetasunak findu.

II.3.- Prozesua bideratzerakoan, nolana ere; eta gaur arte euskal azentuari buruz argitara diren lan nagusiak kontutan hartuz (Azkue, Altube, Larraxket, Mitxelena, Lafon, Izagirre, Holmer, Basterretxea), eta hasteko, ondoko arau hauek onartzea proposatzen dugu:

II.3.1.- Azentu-unitatearen zedarriketa

- a) **proklitikoak**: **ba-** (baiespena), **ez-** (ezezpena), eta **bait-** .
- b) **enklitikoak**: **-bat** (ez zenbakaria), **deklinabide atzizkiak** ; **aditz atzizkiak**, eta **aditz laguntzailea**.

II.3.2.- Silaba azkarraren posizioa

Entonazio beheranzkoan (baiespen normalari dagoen entonazioan, beraz), eta azentu-unitatearen barruan **elementu markaturik** ez dagoen ber, azentukera hauxe izango da: (+2, -1); hau da, azentu-unitatearen barruan, **ezkerretatikako bigarren silaban**, eta **eskuinetatik hasi** eta **lehenengoan** :

itúrritatik
 Abáltzizketá
 eztákigulakó
 ezpáitakí
 emáztebaték

II.3.3.- Azentu-unitate markatuak

II.3.3.1.- Deklinabidean

Mugagabean, singularrean eta izen propioetan, unitate guztian barrena goratasunari azken silabaraino eutsiko bazaio ere (**ez-markatuak** direnez); pluralean barrena, alderantziz, **plurala** markatua denez, doinu erorketa egingo da **azentudun silabatik** eskuin aldera:

itúrrietatik (+2, ↘)
 emákumeentzat (+2, ↘)
 gízonekin (+1, ↘)

Oraingoz, eta ikerketek behin-behineko arau hau zehazteko oinarri sendorik emango ez duteno, **plural osoari** ezarriko zaio azentu erorketa lege hau.

II.3.3.1.1.- Hau dela-ta, markatuak ez diren izen edo izen-orde silababakarretan eta bisilabikoetan, azentuaren bidez berezi ahal izango dira **singularra/mugagabea**, batetik; eta **plurala**, bestetik:

garrák (sg.erg.) \neq **gárrak** (pl.)
gizónák (sg.erg.) \neq **gízonak** (pl.)

II.3.3.2.- Aditz jokabidea

Baldintzazko **bá-** markatua ez duten aditz unitateek oro, oraingoz beti, (+2, -1) azentukera nagusia jasoko dute:

eztáramagulá
ezpáitaramagú
etórrikodirá
harrápatuzutelakó

Eta, alderantziz, beraz:

bádaki (+1, \curvearrowright) = baldin badaki, eta
badáki (+2, -1) = bai, badaki

II.3.4.- Izen unitate markatuak

Unitate markatuen zerrendaketa zehatz eta orokorrak, ikerlana eskatzen du alde zuzenetik; baina adostasun handia bide legoke zenbait hitz unitate markatutzat hartzeko (+1, ↷). Esate baterako: **txístua, básoa, ártea; éuskara, bázkaria, érdara**. Lehendabiziko hiruek kide ez-markatua dute: **txis-túá, basóá** eta **artéá** (ttua, oihana eta zuhaitza, jakina).

Abiapuntutzat, horrelako **hitz markatuon zerrenda minimo** bat Euskaltzaindiak ahalik eta azkarrenik plazaratzea eskatzen dugu.

II.3.4.1.- Erro silababakarra duten aditzak, markatutzat har daitezkeela dirudi:

hár hártu, hártzeko, hárturik
híl híltzea, híltzeko, híltzerakoan

eta beraz:

hártudute, hártudugula, hílkozutela

III.- AZTERKIZUN BATZU

Oinarrizko ideia horien osagarri gerta daitekeen edozein arau erantsi baino lehenago, ikerketa bultzatu behar da alor askotan:

III.1.- **Entonazio goranzkoaren** eraginez, azentudun silaba lekuz alda daiteke. Esaldi **enfatikoetan**, partikula galdekaririk gabeko **galde-perpausetan**, **zerrendaketetan** eta **antikadentziazko** esaeretan, adibidez, azentukera bereziak ager daitezke. Honi buruz zehaztasunak funski eman ahal izateko, ikerlana bultzatuko da.

III.2.- Pluraleko bigarren eta hirugarren pertsonetako adizkietan gertatzen diren fenomenoak ezaguturik, hauetan ere, **oraingoz**, eta behin-behineko arautzat, (+2, -1) ematea proposatzen dugu:

ekárriduté , ikúsikoduzué

III.3.- Hitz konposatuetan, era berean, eta **oraingoz**, euskalkirik gehienetan azentukera berezia gertatzen dela jakinik ere, (+2, -1) araua ematea proposatzen dugu; zehaztasun berriak ahalik eta azkarrenik emateko premia aitorturik ere.

III.4.- Ohar bera hitanozko adizkiei buruz.

III.5.- Jadanik esana dugunez, eta **deklinabideari** gagozkiolarik, pluralaren barruan (absolutua eta lekutasunez-koak, batetik; gainerako kasoak, bestetik) azentu-ñabardurak erantsi beharra argi badago ere, **oraingoz**, eta ikerlanek besterik funtsatuko ez duteno, **doinu-erorketa orokorraren** legea onartuko da **plural guztirako**.

III.6.- **Azentu ortografikoaz** - Idazkera ortografiko **normalean**, eta tradizio nagusiari jarraituz, **azenturik batere ez markatzea** proposatzen dugu.

Egun hauetan Iruñera bildu garenok, beraz, eskabide hau egiten diogu Euskaltzaindiari : alor honetan bere irizpidea ezagutaraz dezala; batasunerako prozesua, horrela, ahalik eta azkarrenik has eta burura dadin.

Iruñean, 1987ko Uztailaren 26an

Biltzar Nagusiko Idazkari gisa

TXILLARDEGI